

# Hegoaldeko 160.000 langabek ez daukate INEMen laguntzarik

Babes soziala langabezia baino arinago jaitea salatu du ELAk

**H**ego Euskal Herrian dauden 213.000 langabeetatik 54.000 inguruk jasotzen dute INEMen laguntzarik, host, lautik batek soilik, eta ia 160.000 langabek ez dute ezelako babesik. Langabezia jaisten ari bada ere, INEMen babesa neurri handiagoan jaisten ari da.

Joseba Aiarza / Bilbo

LANGABEZIAK behera egin zuen iaz Hego Euskal Herrian. Eustaten datuak EAerako eta INErenak (Espainiako estatistika erakundea) Nafarroarako aintzat hartuta, guztira 16.400 langabe gutxiago izan ziren 1997aren amaieran aurreko urtekoekin alderatuta.

INEMen babesa jasotzen duten langabeen kopurua langabezia baino gehiago jaitsi zen iaz: %7,1 jaitsi zen langabezia eta %10,5 langabeentzako babesa. Babesutako langabeak guztien %26,3 izatetik %25,3ra izatera pasa ziren iaz, puntu bat beherago.

German Kortabarria eta Mikel Noval ELAko ordezkariak salatu dutenez, langabeziarako babesa inoiz ez da orain baino apalagoa izan hazkunde ekonomiko garaian. Langabeziarekiko eta babesa sozialarekiko inolako ardurarik ez izatea leporatu die sindikatuek enpresariei eta gobernuari.

Langabeentzako prestazioak murriztearen arrazoiak bat prekarizateari egotzi dio ELAk, behin-behineko nahiz aldi baterako lan enpresen bidez sinatzen diren kontratuek babeserako eskubiderik ematen ez dutelako.

Baina babesaren beharadaren arrazoi nagusia Madrilgo Gobernuaren politika ekonomikoa dela uste du ELAk, arreta osoa aurrekontuak doitu eta defizit publikoa murrizteko helburuan jarrita daukalako.

**Eztanda sozialaren zain** • Argi dago langabezia gaur egun ez dela arazo politikoa eta agintariei bost axola zaiela, baina arazo sozial larria da, eta badirudi politikoak eztanda sozialaren zain daudela langabeziak arduratzeko, azaldu du Kortabarriak.


Babesaren jaitiera gizarlean sorrarazten ari den bazterketa egoerak ikusita, ELAk «inoiz baino beharrezkoagoa» deritzo Eusko Legebiltzarrak Karta Soziala onartzea, gutxieneko baldintza sozialak bermatzeko helburuz.

Era berean, enpleguaren inguruan Lan Harremanen Kontseiluan sindikatuak eta enpresariak egiten ari diren negoziazioetan, lanorduak gutxitzea ezinbestekoa dela iritzi dio ELAk, lanpostuak sortzeko tresna bakarra izango delakoan, nahiz eta horrela enpresariak irabaziak gutxituko lirakeen. «Enpresariak ira-

baziak handitzen jarraitu ala enplegua sortu, hori da erabaki beharrekoa», esan du Novalek.

Madrilen Enplegu Planari buruz hitz egiteko Javier Arenas ministroak eta Ardanza lehendakariak gaur egingo duten bilerari buruz, ELAk gutxietsi egin du Madrilen Enplegu Plana, eta Euskal Herrian berezko enplegu politika egiteko alor sozialen transferentziak ekartzeko eskatu dio. x

riak gaur egingo duten bilerari buruz, ELAk gutxietsi egin du Madrilen Enplegu Plana, eta Euskal Herrian berezko enplegu politika egiteko alor sozialen transferentziak ekartzeko eskatu dio. x



## Euskal Herrian okela ona dugu

EUSKO LABEL



**Okela hau Harategi Baimenduetan bakarrik saltzen da.**  
Beren bereizgarriengatik ezagutuko dituzu

Euskal Herriko Okelarekin konpromisoa hartu duten harategiek, berme gisa, erosketa bat egiten duzun bakoitzean, Kalitateko Eusko Labela duen ziurtagiria emango dizute. Egun 212 harategi ditugu 66 herritan banaturik.



**Bertoko okela natural eta kalitate onekoak Eusko Labelaren identifikazio eta ziurtagiria darama kontsumitzailearengana iritsi arte.**

Gure baserrietan arreta bereziz eta egoki zaindu diren abereetatik datorkigu Kalitateko Eusko Labela duen abelgorri okela.

Abere bakoitza Eusko Labelan erregistratzen da, eta baserrian bertan identifikatu eta kontrolatua dago. Hiltegian, Labelako teknikariek aukeraketa prozesu zorrotz bat burutzen dute, eta onenari bakarrik ematen zaio Kalitateko Eusko Labelaren ziurtagiria.

Horrela, prozesu guztian zehar, zure harategian egiten duzun erosketaraino, okela hori egiaztatua dago, eta Euskal Herriko Kalitateko Abelgorri Okelaren ezaugarri guztiak dituela ziurtatua duzu.

**Okela osasuntsu, zapoetsu eta naturala.**

(Kalitateko Eusko Labelak erregistratuta eta kontrolatuta dauzkan Baserrietatik bakarrik datorkigu okela hau. Egun 2.200 dira).

### KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA



CAMPAÑA FINANCIADA CON LA PARTICIPACION DE LA COMUNIDAD EUROPEA



EUROPAKO ELKARTEAREN PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUTAKO KANPAINA